



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

➤ Musika eta Dantza Eskola

Atotxako Zelai Plaza, 3 | Tel. 943297830 | [info@donostiaeskola.eus](mailto:info@donostiaeskola.eus) | [www.donostiaeskola.eus](http://www.donostiaeskola.eus)  
2012 Donostia / San Sebastián

**TESTU BATERATUA**  
**(Azken aldaketa GAO 2022/07/18)**  
**Oharra: Dokumentuak informazio**  
**izaera du eta EZ du balio**  
**juridikorik**

**TEXTO CONSOLIDADO**  
**(Última modificación BOG**  
**18/07/2022)**  
**Nota: el documento es de**  
**carácter informativo y NO tiene**  
**valor jurídico**

**UDAL MUSIKA ETA DANTZA**  
**ESKOLAREN**  
**ANTOLAMENDU ETA**  
**FUNTZIONAMENDU ARAUDIA**  
**(AFA)**

***REGLAMENTO DE***  
***ORGANIZACIÓN Y***  
***FUNCIONAMIENTO (ROF)***  
***DE LA ESCUELA MUNICIPAL DE***  
***MÚSICA Y DANZA***

## **Udal Musika eta Dantza Eskolaren ANTOLAMENDU ETA FUNTZIONAMENDU ARAUDIA (AFA)**

### **ATARIKO TITULUA**

#### **1. artikulua. Izaera**

1.- Musika eta Dantza Eskola Erakunde Autonomoa Donostiako Udalbatzak sortu zuen 1995eko abenduaren 20ko ohiko osoko bilkuran.

Irakaskuntza ez-arautuaren helburuak bere egiten ditu kultura sortu, kritikatu eta hedatzeari dagokionez, musika eta dantza diziplinen alorra berezizat eta lehentasunezkatzat edukita.

Arduratzat ditu ikasketa antolatzea, irakaskuntza bideratzea eta bere Eskolaren Hezkuntza Proiektuan (EHP) sartutako diziplinen ikerketa garatzea, baita bere alorreko zerbitzu publikoa emateari berez dagokion administrazio kudeaketa ere.

2.- Musika eta Dantza Eskola Erakunde Autonomoak berezko eraketa juridikoa du, gaitasun juridikoa eta jokatzeko gaitasuna ditu eta eginkizunak autonomiaz betetzen ditu.

3.- Musika eta Dantza Eskola Erakunde Autonomoa arautzeko erabiliko dira erakundearen estatutuak, bere barne araudiak, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Musika eta Dantza Eskolak nola sortu eta antolatu arautzekoak eta aplikatu beharreko gainerako arauak.

#### **2. artikulua. Zereginak eta jarduera**

1.- Donostiako Musika eta Dantza Eskola Erakunde Autonomoaren berezko zeregin izango dira estatutuek xedatzen dituztenak.

2.- Musika eta dantza eskola baten jardunbidearen eta autonomiaren oinarria da Eskolaren Hezkuntza Proiektuko (EHP) programazioak, helburuak eta ikerketak koordinatzea.

3.- Autonomia hori dela medio, irakasleek, ikertzaileek eta ikasleek beren erantzukizunak bete ditzakete gizartearen kultur beharrak ase ahal izateko.

## **REGLAMENTO DE ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO (ROF) de la Escuela Municipal de Música y Danza**

### **TÍTULO PRELIMINAR**

#### **Artículo 1. Naturaleza**

*1.- El Organismo Autónomo “Escuela de Música y Danza” fue creado por acuerdo plenario del Excmo. Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián en sesión ordinaria celebrada el 20 de diciembre de 1995.*

*Es un Centro que participa de los fines de la enseñanza no reglada en orden a la creación, crítica y transmisión de la cultura desde el campo específico y prioritario de las distintas disciplinas musicales y de danza.*

*Está encargado de la organización del estudio, la impartición de la docencia y el desarrollo de la investigación de las disciplinas incluidas en su Proyecto Educativo de Centro (PEC), así como de la gestión administrativa inherente a la prestación del servicio público de su especialidad.*

*2.- El Organismo Autónomo “Escuela de Música y Danza” tiene personalidad jurídica propia, está dotado de capacidad jurídica y de obrar, desarrollando sus funciones en régimen de autonomía.*

*3.- El Organismo Autónomo “Escuela de Música y Danza” se regirá por sus estatutos, por su normativa interna, por las normas que rijan la creación y funcionamiento de las Escuelas de Música y Danza en la Comunidad Autónoma de Euskadi y por las restantes normas que le sean de aplicación.*

#### **Artículo 2. Funciones y actividad**

*1.- Son funciones propias del Organismo Autónomo “Escuela de Música y Danza” de Donostia / San Sebastián las que se establecen en sus estatutos.*

*2.- La actividad de un centro de enseñanza musical y de danza, así como su autonomía, se fundamenta en la coordinación de las distintas programaciones, objetivos e investigaciones dentro del Proyecto Educativo de Centro (PEC).*

*3.- Esta autonomía exige y hace posible que el personal docente, investigador y estudiantes cumplan con sus respectivas responsabilidades en orden a la satisfacción de las necesidades culturales de la sociedad.*

4.- Eskolaren kudeaketa estrategikoaren barruan txertatuko da, Udalak sustatutako zeharkako politikekin batera, euskararen erabilera normalizazioari dagokiona.

4.- Dentro de la gestión estratégica de la escuela se integrará, junto con las políticas transversales promovidas por el Ayuntamiento, la relativa a la normalización del uso del euskera.

## 2. bis artikulua. Egoitzak.

## Artículo 2. Bis. Las Sedes.

1.- Eskolak ematen diren Egoitza hauetan antolatzen da Eskola:

1.- La Escuela se organiza en las siguientes Sedes Docentes en las que imparte docencia:

- Atotxako egoitza nagusia
- Dantza egoitza
- Herrerako egoitza
- Auzoko Ikasgelak

- Sede principal de Atotxa
- Sede de Danza
- Sede de Herrera
- Aulas de Barrio

## I. TITULUA.- ERAKUNDE AUTONOMOAREN GOBERNUA ETA KUDEAKETA

## TÍTULO I.- DEL GOBIERNO Y GESTIÓN DEL ORGANISMO AUTÓNOMO

### 1. ATALA. Kudeaketa, ordezkaritza eta gobernu organoak

### SECCIÓN 1ª. Los órganos de gestión, representación y gobierno

#### 3. artikulua. Erakunde Autonomoaren Organoak

#### Artículo 3. Órganos del Organismo Autónomo

Honako hauek dira Musika eta Dantza Eskola Erakunde Autonomoko organoak:

Los órganos del Organismo Autónomo “Escuela de Música y Danza” son:

Kide anitzekoak:

Colegiados:

- a) Erakunde Autonomoaren Zuzendaritza Kontseilua
- b) Zuzendaritza Batzordea
- c) Eskola Kontseilua
- d) Pedagogia Zuzendaritza Taldea
- e) Irakasle Klaustro Orokorra
- f) Egoitzako Klaustroak
- g) Kudeaketako bulegoa eta Zerbitzu Orokorrak
- h) Udalaren Txistulari Taldea
- i) Ikasleen Arduradunen Batzarra
- j) Ikasleen Batzarra

- a) El Consejo Rector del Organismo Autónomo
- b) El Comité de Dirección
- c) El Consejo Escolar
- d) El Equipo de Dirección Pedagógica
- e) El Claustro General de profesorado
- f) Los Claustros de Sede
- g) La Oficina de Gerencia y Servicios Generales
- h) La Banda Municipal de Txistularis
- i) La Asamblea de personas responsables del alumnado
- j) La Asamblea del Alumnado

Kide bakarrekoak:

Unipersonales:

- a) Erakunde Autonomoaren Lehendakaria
- b) Erakunde Autonomoaren Lehendakariordea
- c) Erakunde Autonomoaren Kudeatzailea
- d) Idazkari teknikoa

- a) El Presidente o la Presidenta del Organismo Autónomo
- b) El Vicepresidente o la Vicepresidenta del Organismo Autónomo
- c) La Gerencia del Organismo Autónomo
- d) La Secretaría técnica

- |   |  |
|---|--|
| e) Pedagogia Zuzendaritza                 | e) La Dirección Pedagógica                           |
| f) Egoitzako Ikasketa Buruak              | f) Las Jefaturas de Estudios de Sede                 |
| g) Atotxako Idazkaria                     | g) La Secretaría de Atotxa                           |
| h) Zerbitzu Orokorren Burua               | h) La Jefatura de Servicios Generales                |
| i) Udalaren Txistulari Taldeko Zuzendaria | i) La Dirección de la Banda Municipal de Txistularis |
| j) Liburuzaina                            | j) El Bibliotecario o la Bibliotecaria               |

## **2. ATALA. Erakunde Autonomoaren Zuzendaritza Kontseilua** *SECCIÓN 2ª. El Consejo Rector del Organismo Autónomo*

### **4. artikulua. Zuzendaritza Kontseilua** *Artículo 4. Consejo Rector*

1.- Zuzendaritza Kontseiluari dagokio Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskola Erakunde Autonomoa gobernatzea eta administratzea. Zuzendaritza Kontseiluaren Lehendakaria izango da Erakunde Autonomoaren estatutuek xedatzen duten pertsona.

2.- Musika eta Dantza Eskola Erakunde Autonomoaren estatutuek eta Eskolaren barne araudiak arautuko dute Zuzendaritza Kontseilua.

*1.- El gobierno y administración del Organismo Autónomo Escuela Municipal de Música y Danza de Donostia / San Sebastián corresponde al Consejo Rector. Ostentará la presidencia del Consejo Rector la persona que determinen los estatutos del Organismo Autónomo.*

*2.- El Consejo Rector se rige por los estatutos del Organismo Autónomo Escuela Municipal de Música y Danza de Donostia / San Sebastián y por la normativa interna del Centro.*

## **3. ATALA. Erakunde Autonomoaren Zuzendaritza Batzardea** *SECCIÓN 3ª. El Comité de Dirección del Organismo Autónomo*

### **5. artikulua. Zuzendaritza Batzardea** *Artículo 5. Comité de Dirección*

1.- Kudeatzaileak, Pedagogia Zuzendaritzak, Udalaren Txistulari Taldeko Zuzendariak, Zerbitzu Orokorren Buruak eta Idazkaritza Teknikoak osatzen dute Erakunde Autonomoaren Zuzendaritza Batzardea.

2.- Zuzendaritza Batzardea Erakunde Autonomoaren koordinazioko eta kudeaketako organo nagusia da, eta berorren helburua Erakunde Autonomoaren funtzionamenduaren irizpideak, interpretazioak eta jarraibideak erabakitzea da.

3.- Erakunde Autonomoaren Plangintzan finkatutako helburuak lortzeko xedean, bi hilean behin bilduko da Zuzendaritza Batzardea Erakunde Autonomoaren kudeaketa aztertzeko eta jarduerak lehenesteko.

*1.- El Comité de Dirección del Organismo Autónomo estará integrado por la Gerencia, la Dirección Pedagógica, la Dirección de la Banda Municipal de Txistularis, la Jefatura de Servicios Generales y la Secretaría Técnica.*

*2.- El Comité de Dirección es el máximo órgano de coordinación y gestión del Organismo Autónomo cuya finalidad es la de acordar criterios, interpretaciones, directrices... del funcionamiento del Organismo Autónomo.*

*3.- Las reuniones del Comité de Dirección se efectuarán con carácter bimensual para analizar la marcha de la gestión del Organismo Autónomo y priorizar actuaciones con el fin de conseguir los objetivos marcados en la Planificación del Organismo Autónomo.*

## **4. ATALA. Eskola Kontseilua** *SECCIÓN 4ª. El Consejo Escolar*

### **6. artikulua. Eskola Kontseilua** *Artículo 6. Consejo Escolar*

1.- Eskola komunitatea osatzen duten pertsonen eskolaren gobernuan parte hartzeko organoa da Eskola Kontseilua. Gutxienez urtean hirutan elkartuko da, ikasturteko hiruhileko bakoitza amaitzeaz batera.

2.- Honako hauek izango dira kideak:

*1.- El Consejo Escolar es el órgano de participación de las personas que componen la comunidad educativa en el gobierno de la Escuela. Se reunirá al menos tres veces durante el año, coincidiendo con el fin de cada trimestre del curso escolar.*

*2.- Estará integrado por:*

- Lehendakariordea. Hura izango da Eskola Kontseiluaren lehendakaria, Erakunde Autonomoaren Lehendakaritzaren eskuordetzeaz.

- Erakunde Autonomoaren Kudeatzailea.

- Pedagogia Zuzendaritza.

- Klaustroak aukeratutako hiru irakasle.

- Ikasleen arduradunen hiru ordezkari.

- Ikasleen hiru ordezkari.

- Administrazio eta zerbitzuetako langileen bi ordezkari.

- Atotxako Idazkariak idatziko du akta, eta hizpidea eta botoa edukiko ditu.

- *El Vicepresidente o la Vicepresidenta, que ejercerá la presidencia del Consejo Escolar por delegación de la Presidencia del Organismo Autónomo.*

- *La Gerencia del Organismo Autónomo.*

- *La Dirección Pedagógica.*

- *Tres representantes del profesorado elegidos por el Claustro.*

- *Tres representantes de las personas responsables del alumnado.*

- *Tres representantes del alumnado.*

- *Dos representantes del personal de administración y servicios.*

- *La Secretaría de Atotxa que levantará acta y tendrá voz y voto.*

3.- Era berean, Eskola Kontseiluko bileretara dei dakieke, botorik edukiko ez duten arren, Egoitzako Ikasketa Buruei Eskolako Egoitzetako batekin zerikusi zuzena duten gaiak aztergai direnean. Gainera, betiere aztertzen den gaiaren arabera, Eskola Kontseiluaren Lehendakariak aholkulari eta laguntzaile gisa jarduteko gonbidatzen dituen lagunak izango dira saioetan.

3.- *Asimismo, podrán ser convocadas a las reuniones del Consejo Escolar, sin derecho a voto, las Jefaturas de Estudios de Sede en los casos en los que se traten temas específicamente relacionados con alguna de las Sedes de la Escuela. También asistirán a estas sesiones aquellas personas que sean invitadas por la Presidencia del Consejo Escolar para asesorar o colaborar, dependiendo del tema que sea tratado.*

## 7. artikulua. Eskola Kontseiluaren zereginak

## Artículo 7. Funciones del Consejo Escolar

1.- Honako hauek dira Eskola Kontseiluaren zereginak:

1.- *Serán funciones del Consejo Escolar:*

1) Zuzendaritza Kontseiluari, honek onar dezan, Eskolaren Hezkuntza Proiektua (EHP) eta Antolamendu eta Funtzionamendu Araudia (AFA) proposatzea, bete daitezen arduratzea eta ebaluazioa egitea.

1) *Proponer al Consejo Rector, para su aprobación, el Proyecto Educativo de Centro (PEC) y el Reglamento de Organización y Funcionamiento (ROF), velar por su cumplimiento y realizar su evaluación.*

2) Zuzendaritza Kontseiluari, honek onartu dezan, Urteko Kudeaketa Plana (UKP) proposatzea, irakasleak trebatzeko eta birziklatzeko jarduerak, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak barne, eta, betiere, Irakasle Klaustro Orokorrari dagozkion irakaskuntza alderdiak errespetatzea.

2) *Proponer al Consejo Rector, para su aprobación, el Plan de Gestión Anual (PGA), incluyendo las actividades de formación y reciclaje del profesorado, así como actividades extraescolares y complementarias, respetando en todo caso los aspectos docentes que competen al Claustro General de profesorado.*

3) Zuzendaritza Kontseiluari, honek onar dezan, Erakundearen Urteko Kudeaketa azaltzen duen Txostena (UKT) proposatzea.

3) *Proponer al Consejo Rector, para su aprobación, la Memoria explicativa de la Gestión Anual (MGA) del Organismo.*

4) Zuzendaritza Kontseiluari Eskola egutegia onarkizun aurkeztea.

4) *Proponer al Consejo Rector, para su aprobación, el Calendario Escolar.*

5) Zuzendaritza Kontseiluari Eskolari eta hango bitzta akademikoari buruzko txostena aurkeztea eta dagozkion proposamenak egitea.

5) *Elevar al Consejo Rector informe sobre la Escuela y su vida académica formulando en su caso las oportunas propuestas.*

6) Irakasleekin, ikasleekin eta haien familiekin zerikusia duten bizikidetzeta eta diziplina arazoak Araudi honen arabera ebaztea.

6) *Dirimir las cuestiones de disciplina y convivencia, de acuerdo a lo que se establece en este Reglamento en relación al profesorado, al alumnado y a sus familias.*

7) Eskolako pedagogia zuzendaritza karguen hautaketa prozesuetan parte hartzea. Karguari dagozkion zereginetan huts egite larririk gertatuz gero, kargutik kentzeko proposamenak egitea, Eskola Kontseiluko kideen bi hereneko gehiengoarekin hala erabaki eta gero.

8) Kudeatzaileari Zuzendaritza Batzordearen bilkura egunei eta gai zerrendei buruzko informazioa aurrez eskatzea.

2.- Eskola Kontseiluak, bere eginkizunak betetzeko, laguntza hauek eska ditzake:

1) Eskola komunitateko gainerako kolektiboen parte hartze organoei iritzia eskatzea interes bereziko gaitan.

2) Batzorde iraunkorrak edo behin-behineko batzordeak eratzea.

3) Laguntza zerbitzuei, Ikuskaritzari eta, oro har, Administrazioari egoki irizten dizkion datuak, txostenak eta aholkularitza eskatzea.

## 8. artikulua. Eskola Kontseiluaren bilkurak

1.- Eskola Kontseiluak bi bilkura mota egingo ditu: Ohikoak eta ohiz kanpokoak; bilkurok presazkoak ere izan daitezke.

2.- Ohiko bilkurak, nahitaez, hiru hilean behin izango dira, hiruhilekoa amaitzeaz batera.

3.- Ohiz kanpoko bilkurak Erakunde Autonomoaren Lehendakariordetzak deituta edo Eskola Kontseiluko kideen heren batek, gutxienez, eskatzen duenean egingo dira. Azkenari dagokionez, eskabidea aurkeztu eta, gehienez ere, hurrengo hamabost egunean elkartuko da.

## 9. artikulua. Eskola Kontseiluaren bilkurak

1.- Erakunde Autonomoaren Lehendakariordeak, Eskola Kontseiluaren lehendakari moduan, ohiko eta ohiz kanpoko bilkurak deituko ditu, haietarako gai zerrendak ere prestatuta, astebete lehenago; salbuespen izango direla presazko ohiz kanpoko bilkurak, halakoak presaz deitu beharra Kontseiluak berak berretsi beharko duenarik. Lehendakariordea bertan ez denean, Kudeatzaileak hartuko ditu bere gain haren zereginak.

2.- Eskola Kontseiluaren saioetan, hura osatzen duten guztiek izango dituzte hizpidea eta erabakimena.

3.- Eskola Kontseiluko kideak bi urtean egongo dira arduran izendatu eta karguaz jabetzen direnetik, aginpidea amaituta bertan behera utzi beharko dutela, baita dimisioa ematen dutelako edo kargutik kentzen dituztelako.

7) Participar en el proceso de selección de los cargos de dirección pedagógica de la Escuela. Previo acuerdo adoptado por mayoría de dos tercios de sus miembros, proponer la remoción del nombramiento de los mismos en caso de incumplimiento grave de las funciones inherentes a su cargo.

8) Solicitar a la Gerencia información previa sobre las fechas de reunión de la Junta Rectora y el Orden del Día establecido.

2.- El Consejo Escolar, para el cumplimiento de sus funciones, podrá recabar los siguientes apoyos:

1) Solicitar opinión en asuntos de especial interés a los órganos de participación de los diferentes colectivos de la comunidad escolar.

2) Constituir Comisiones con carácter estable o con carácter puntual.

3) Solicitar a los servicios de apoyo, a la Inspección y a la Administración en general los datos, informes y asesoramiento que considere oportunos.

## Artículo 8. Sesiones del Consejo Escolar

1.- El Consejo Escolar de la Escuela funciona en régimen de sesiones ordinarias y extraordinarias, que pueden ser además urgentes.

2.- Las sesiones ordinarias se celebrarán de forma preceptiva al menos una vez al trimestre, coincidiendo con el fin del mismo.

3.- Las sesiones extraordinarias se celebrarán cuando sean convocadas por la Vicepresidencia del Organismo Autónomo o cuando lo solicite, al menos, la tercera parte de las personas que componen el Consejo Escolar. En el último supuesto, la celebración no podrá demorarse más de quince días naturales desde que se solicitó.

## Artículo 9. Sesiones del Consejo Escolar

1.- La Vicepresidencia del Organismo Autónomo, que presidirá el Consejo Escolar, convocará las sesiones ordinarias y extraordinarias, confeccionando el orden del día, al menos con una semana de antelación, salvo las extraordinarias que lo hayan sido con carácter urgente, cuya convocatoria con este carácter deberá ser ratificada por el Consejo. En ausencia de la Vicepresidencia asumirá sus funciones la Gerencia.

2.- En las sesiones del Consejo Escolar, todas las personas que conforman el mismo, que asistan, tendrán derecho a voz y voto.

3.- El mandato de las personas que componen el Consejo Escolar será de 2 años, contados a partir de su nombramiento y correspondiente toma de posesión, cesando en sus funciones al término de su mandato, o en caso extraordinario, por renuncia o destitución.

Baldin eta kasu bereziren batean posturen bat hutsik geratzen bada Eskola Kontseiluan, hautaketa prozesuetatik ateratako zerrenden arabera osatuko da. Era berean, kolektiboen ordezkariak beste norbaiten esku ere utzi dezakete Eskola Kontseiluan haien ordezkari hartzeko eskubidea, betiere talde bereko pertsonak izanez gero eta idatziz emanez gero eskuordetzea.

4.- Gehiengo soiluz onartuko dira Eskola Kontseiluari aurkeztutako proposamen guztiak.

5.- Atotxako Idazkariak bilkura bakoitzaren agiria egingo du, honako hauek jasota: Eguna, ordua, tokia, aztergaiak eta erabakien edukia.

6.- Aktak Atotxako Idazkariak izenpetuko ditu eta Lehendakariordeak ontzat emango, eta bilkuran bertan edo hurrengoan onartuko dituzte. Atotxako Idazkaria ez badago, Erakunde Autonomoaren Lehendakariordeak izendatuko du akta idatzi behar duen laguna.

Aktak publikoak izango dira eta eskola komunitateko edozein kidek kontsulta ditzake.

7.- Eskola Kontseilua legez eratutzat joko da Kontseiluko kide guztien erdiak gehi bat bertaratu gero. Nolanahi ere, lehendakaritza eta idazkaritza karguen jabe direnek, edo legez haien ordezkari direnek, nahitaez izan behar dute bileran.

## **5. ATALA. Pedagogia Zuzendaritza Taldea**

### **10. artikulua. Pedagogia Zuzendaritza Taldea.**

1.- Pedagogia Zuzendaritzak, Egoitzetako Ikasketak Buruak eta Atotxako Idazkariak osatzen dute Pedagogia Zuzendaritza Taldea.

2.- Honako hauek dira bere zereginak:

1) Eskolaren gobernuko gai guztietan zuzendaritza, laguntza, koordinazio eta aholkularitza lanak betetzea.

2) Urteko Kudeaketa Planaren (UKP) gauzatzea, koordinatzea eta gainbegiratzea, eta Eskola Kontseiluari eta Zuzendaritza Kontseiluari haren betetze mailaren berri ematea, azken horrek Erakundearen Urteko Kudeaketa azaltzen duen Txostena (UKT) onar dezan.

3) Klaustro Orokorretarako gai zerrenda prestatzea.

3.- Pedagogia Zuzendaritzak deialdi bereziak egingo ditu beren eskumeneko gaiekin zuzeneko zerikusia duten gaiak aztertzeko.

*Las vacantes que se produzcan en el Consejo Escolar en casos extraordinarios serán completadas a partir de las listas resultantes de los procesos electorales. Asimismo, las personas que representen algún colectivo podrán delegar su participación en el Consejo Escolar mediante escrito en el que se designe a una persona sustituta perteneciente al mismo colectivo.*

*4.- Todas las propuestas que se eleven al Consejo Escolar se aprobarán por mayoría simple.*

*5.- La Secretaría de Atotxa levantará acta de cada sesión, en la que se incluirán las circunstancias de lugar y tiempo en que se ha celebrado, los puntos principales de deliberación y el contenido de los acuerdos.*

*6.- Las actas serán firmadas por la Secretaría de Atotxa, con el visto bueno de la Vicepresidencia y se aprobarán en la misma o posterior sesión. En ausencia de la Secretaría de Atotxa, la Vicepresidencia del Organismo Autónomo designará la persona que levantará acta.*

*Estas actas serán públicas y podrán ser consultadas por cualquiera de las personas que componen la comunidad educativa.*

*7.- Para la válida constitución del Consejo Escolar será necesario un quórum de asistencia de la mitad más una de las personas que componen el Consejo. En todo caso será necesaria la presencia de las personas titulares de la presidencia y de la secretaría o, en su defecto, de las personas que les sustituyan.*

## **SECCIÓN 5ª. El Equipo de Dirección Pedagógica**

### **Artículo 10. Equipo de Dirección Pedagógica.**

*1.- El Equipo de Dirección Pedagógica estará formado por la Dirección Pedagógica, las Jefaturas de Estudios de Sede y la Secretaría de Atotxa.*

*2.- Su funciones serán:*

*1) Dirigir, asistir, coordinar y asesorar en todos los temas de gobierno de la Escuela.*

*2) Coordinar y supervisar la ejecución del Plan de Gestión Anual, e informar sobre su cumplimiento al Consejo Escolar y al Consejo Rector, al efecto de que este último apruebe la Memoria explicativa de la Gestión Anual del Organismo.*

*3) Preparar el orden del día de los Claustros Generales.*

*3.- Será convocado de manera específica por la Dirección Pedagógica para tratar los temas relacionados directamente con su competencia.*

## **6. ATALA. Irakasle Klaustro Orokorra**

### **11. artikulua. Klaustro Orokorra**

1.- Musika eta Dantza Eskolako Irakasle Klaustro Orokorra da irakasleok Eskolan parte hartu ahal izateko organoa.

2.- Musika eta Dantza Eskolan lan egiten duten irakasle guztiak osatzen dute.

Era berean, horrelako saioetan partaide izan daitezke Pedagogia Zuzendaritzak aholkulari edo laguntzaile moduan gonbidatutako lagunak ere, landu beharreko gaiaren arabera.

3.- Klaustro Orokorren burua Pedagogia Zuzendaritza izango da. Egoitzako Idazkari batek, Pedagogia Koordinatzaile Orokorrek izendatuak, bilkuren akta egingo du.

### **12. artikulua. Klaustro Orokorren zereginak**

Irakasle Klaustro Orokorren zereginak izango dira honako hauek:

1) Eskola Kontseiluari, honek eztabaidatu dezan, Eskolaren Hezkuntza Proiektua (EHP), Antolamendu eta Funtzionamendu Araudia (AFA), Urteko Kudeaketa Plana (UKP) eta Erakundearen Urteko Kudeaketa azaltzen duen Txostena (UKT) aurkeztea.

2) Eskolaren Curriculum Proiektua (ECP) onartzea.

3) Eskolan garatu beharreko pedagogia alorreko esperimentazio eta ikerketa ekimenak sustatzea.

4) Eskola Kontseiluan Klaustroaren ordezkari izango diren hiru irakasleak aukeratzea.

5) Eskolan eduki pedagogikoa duten araudien gaineko dokumentu guztiak aztertzea.

6) Egoitzako Ikasketa Buruei, Eskola Kontseiluari eta Erakunde Autonomoaren Zuzendaritza Kontseiluari proposamenak, eskaerak, hobekuntzak, kezkak, txostenak eta abar aurkeztea, egoki iritziz gero.

7) Urteko aurrekontuaren kudeaketa ezagutzea, Eskola Kontseiluak eta Zuzendaritza Kontseiluak landutako gaien eta Erakunde Autonomoaren gaineko beste edozein informazio jakingarriren berri jasotzea.

### **13. artikulua. Klaustro Orokorren bilkurak**

1.- Irakasle Klaustro Orokorrek bi bilkura mota egingo ditu: Ohikoak eta ohiz kanpokoak; bilkurok presazkoak ere izan daitezke.

## **SECCIÓN 6ª. El Claustro General de profesorado**

### **Artículo 11. Claustro General**

1.- *El Claustro General de profesorado de la Escuela de Música y Danza es el órgano de participación de éste en la propia Escuela.*

2.- *Está integrado por la totalidad del profesorado que presta servicios en la Escuela de Música y Danza.*

*Asimismo asistirán a estas sesiones aquellas personas que sean invitadas por la Dirección Pedagógica para colaborar y/o asesorar, dependiendo del tema que sea tratado.*

3.- *El Claustro General es presidido por la Dirección Pedagógica. La Secretaría de Atotxa levantará acta de cada reunión.*

### **Artículo 12. Funciones del Claustro General**

*Serán funciones del Claustro General de profesorado las siguientes:*

1) *Elevar al Consejo Escolar, para su debate, el Proyecto Educativo de Centro (PEC), , el Reglamento de Organización y Funcionamiento (ROF), el Plan de Gestión Anual (PGA) y la Memoria explicativa de la Gestión Anual (MGA) del Organismo.*

2) *Aprobar el Proyecto Curricular de Centro (PCC)*

3) *Promover iniciativas en el ámbito de la experimentación o investigación pedagógica a desarrollar en la Escuela.*

4) *Elegir tres docentes que lo representen en el Consejo Escolar.*

5) *Supervisar toda la documentación relativa a normativas de contenido pedagógico de la Escuela.*

6) *Presentar cuantas propuestas, peticiones, solicitudes de mejoras, informes, etc. considere oportunas a las Jefaturas de Estudios de Sede, al Consejo Escolar de la Escuela y al Consejo Rector del Organismo Autónomo.*

7) *Conocer de la gestión del presupuesto anual, ser informado de los temas tratados en el Consejo Escolar y el Consejo Rector, así como de cualquier otra información referente al Organismo Autónomo que sea de su interés.*

### **Artículo 13. Sesiones del Claustro General**

1.- *El Claustro General de profesorado funciona en régimen de sesiones ordinarias y extraordinarias, que pueden ser además urgentes.*



2.- Ohiko bilkurak, nahitaez, hiru hilean behin izango dira. Ohiz kanpoko bilkurak Pedagogia Zuzendaritzak deituta edo Klaustroko kideen lautatik batek, gutxienez, eskatzen duenean egingo dira. Azkenari dagokionez, eskabidea aurkeztu eta, gehienez ere, hurrengo zazpi egunean elkartuko da.

2.- *Las sesiones ordinarias se celebrarán de forma preceptiva al menos una al trimestre. Las sesiones extraordinarias se celebrarán cuando sean convocadas por la Dirección Pedagógica o cuando lo solicite la cuarta parte al menos de las personas que componen el Claustro. En el último supuesto, la celebración no podrá demorarse más de siete días naturales desde que se solicitó.*

#### **14. artikulua. Klaustro Orokorraren funtzionamendua**

#### **Artículo 14. Funcionamiento del Claustro General**

1.- Klaustro Orokorraren bileretara joatea nahitaezkoa du kide den guztiak, eskolak emateko lanaldia % 40koa edo luzeagoa baldin badu eta dena delako kideak dituen betebeharrekin zuzenean lotutako beste lanen bat egin behar duela eta Pedagogia Zuzendaritzak ez joateko lizentzia edo baimena eman ez badio behintzat.

1.- *La asistencia al Claustro General será obligada para todas las personas que lo componen y tengan una jornada laboral dedicada a la docencia igual o superior al 40%, salvo licencia o permiso de la Dirección Pedagógica por tener que desarrollar otra labor directamente relacionada con sus deberes.*

2.- Klaustroa legez eratzat joko da irakasle guztien erdiak gehi bat bertaratuz gero. Quorum horri eutsi beharko zaio bilkura osoan erabakiak legezko izan daitezten. Nolanahi ere, Pedagogia Zuzendaritzak eta Atotxako Idazkariak, edo legez haien ordezkariak, nahitaez izan behar dute bileran.

2.- *El Claustro se constituirá válidamente con la asistencia de al menos la mitad más uno del número total de profesores y profesoras. Este quórum deberá mantenerse durante toda la sesión para la validez de sus acuerdos. En todo caso se requiere la asistencia de la Dirección Pedagógica y de la Secretaría de Atotxa o de quienes legalmente les sustituyan.*

3.- Erabakiak bozketa agerikoan hartuko dira, klaustrokideren batek bozketa sekretua eskatu ezean.

3.- *La adopción de acuerdos se produce mediante votación pública, salvo que cualquiera de las personas que componen el Claustro solicite votación secreta.*

4.- Araudi honek espezifikoki xedaturikoak izan ezik, akordioak onartuko dira aldeko botoen gehiengo hutsa edukita. Berdinketarik egotekotan, beste bozketa bat izango da eta, berdinketak bere hartan iranez gero, Pedagogia Zuzendaritzaren kalitate botoak erabakiko du.

4.- *Excepto los supuestos específicamente previstos por este Reglamento, los acuerdos se tomarán por mayoría simple de votos afirmativos. En caso de empate se efectuará una nueva votación y si persistiera el empate decidirá el voto de calidad de la Dirección Pedagógica.*

#### **15. artikulua. Landutako gaiak eta bozketak**

#### **Artículo 15. Asuntos tratados y votaciones**

1.- Klaustro Orokorraren bilkuretara joaten direnak hizpidea eta erabakimena izango dituzte, Pedagogia Zuzendaritza eztabaida moderatu eta antolatze eskumena duen arren.

1.- *En las sesiones del Claustro General, quienes asistan tendrán derecho a voz y voto, sin perjuicio de las facultades de la Dirección Pedagógica en cuanto a la moderación y ordenación del debate.*

2.- Landutako gaiak, 12. artikuluan jasotako zereginen barrukoak ez badira, kontsulta mailakoak izango dira eta bozketek klaustrokideen kezak baino ez dituzte adieraziko.

2.- *Los asuntos tratados, que no estén incluidas dentro de las funciones recogidas en el artículo 12, tendrán carácter consultivo y las votaciones que se realicen serán solamente indicativas de las preocupaciones de las personas que componen el Claustro.*

3.- Onartutako akordioaren aurkako botoa eta hala bozkatzeko zioak jasoaraz ditzakete klaustrokideek. Hala bada, erabakiaren ondorioz izan litezkeen erantzukizunetik salbuetsirik geratuko dira.

3.- *Las personas que componen el Claustro podrán hacer constar su voto contrario al acuerdo adoptado y los motivos que lo justifican. En este caso, quedarán exentas de la responsabilidad que, en su caso, pueda derivarse de dicho acuerdo.*

#### **16. artikulua. Klaustro Orokorraren bilera motak**

#### **Artículo 16. Tipos de sesiones del Claustro General**

1.- Klaustrokideen ohiko eta ohiz kanpoko bilera, gutxienez, astebete lehenago deitu behar dira, gai zerrenda lagun, salbuespen izango direla presazko ohiz kanpoko bilkurak, halakoak presaz deitu beharra Klaustroak berak berretsi beharko duelako. Klaustrokide

1.- *Las sesiones de Claustro ordinarias y extraordinarias han de convocarse al menos con una semana de antelación, incluyendo el orden del día, salvo las extraordinarias que lo hayan sido con carácter urgente, cuya convocatoria con este carácter*

guztiei deialdia helarazteko beharrezko komunikazio bitarteko guztiak erabiliko dira.

2.- Gai zerrenda Pedagogia Zuzendaritza Taldeak egingo du, eta hark egin ezean, Pedagogia Zuzendaritzak; horrezaz gainera, gai zerrendako aztergaien gaineko dokumentu guztiak Klaustrokide guztiei bidaliko dizkie behar besteko aurrerapenarekin.

3.- Ohiko bilkuretako gai zerrendako azken puntu moduan jasoko da «Eskaerak eta galderak» atala. Atal horretan partaideek nahi beste galdera eta iradokizun egin ditzakete.

4.- Ezingo da gai zerrendan ez dagoen gairik erabaki, salbu eta Klaustrokideen gehiengo absolutuak presazkotzat jo eta bilkuran aurkezten diren proposamenak badira.

#### **17. artikulua. Klaustro Orokorren aktak**

1.- Atotxako Idazkariak bilkuraren akta egingo du, honako hauek jasota: Eguna, ordua, tokia, aztergaiak eta erabakien edukia.

2.- Aktak Atotxako Idazkariak izenpetuko ditu eta Pedagogia Zuzendaritzak ontzat emango ditu, eta hurrengoan jarriko dituzte onarpena, gai zerrendako lehenengo gaia izango delarik. Atotxako Idazkaria ez badago, Pedagogia Zuzendaritzak izendatuko du akta idatzi behar duen laguna.

Aktak publikoak izango dira eta eskola komunitateko edozein kidek kontsulta ditzake.

#### **7. ATALA. Egoitzako Pedagogia Zuzendaritza Taldeak (Ezabatuta)**

#### **18. artikulua. Egoitzak (Ezabatuta)**

#### **19. artikulua. Egoitzako Pedagogia Zuzendaritza Taldeak (Ezabatuta)**

#### **20. artikulua. Egoitzako Pedagogia Zuzendaritza Taldeen funtzioak (Ezabatuta)**

#### **8. ATALA. Egoitzako Klaustroak**

#### **21. artikulua. Egoitzako Klaustroak**

*deberá ser ratificada por el Claustro. Se utilizarán las vías de comunicación necesarias para hacer llegar la convocatoria a todas las personas que integran el Claustro*

*2.- El orden del día será elaborado por el Equipo de Dirección Pedagógica, y en su defecto por la Dirección Pedagógica, quien remitirá la documentación íntegra de los asuntos incluidos en el orden del día a todas las personas que integran el Claustro con suficiente antelación.*

*3.- Como último punto del orden del día figurará, en las sesiones ordinarias, el de “Ruegos y Preguntas”. En este momento, quienes asistan podrán formular cuantas preguntas y observaciones quieran hacer.*

*4.- No podrá ser objeto de acuerdo ningún asunto que no figure en el orden del día, salvo las propuestas presentadas en la propia sesión que sean declaradas de urgencia con el voto favorable de la mayoría absoluta del número de personas que componen el Claustro.*

#### **Artículo 17. Las actas del Claustro General**

*1.- La Secretaría de Atotxa levantará acta de cada sesión, en la que se incluirán las circunstancias de lugar y tiempo en que se ha celebrado, los puntos principales de deliberación y el contenido de los acuerdos.*

*2.- Las actas serán firmadas por la Secretaría de Atotxa, con el visto bueno de la Dirección Pedagógica y se aprobarán en la siguiente sesión siendo el primer punto del orden del día. En ausencia de la Secretaría de Atotxa, la Dirección Pedagógica designará la persona que levantará acta.*

*Estas actas serán públicas y podrán ser consultadas por cualquiera de las personas que componen la comunidad educativa.*

#### **SECCIÓN 7ª. Los Equipos Directivos Pedagógicos de Sede (Suprimido).**

#### **Artículo 18. Las Sedes (Suprimido).**

#### **Artículo 19. Equipos Directivos Pedagógicos de Sede (Suprimido).**

#### **Artículo 20. Funciones de los Equipos Directivos Pedagógicos de Sede (Suprimido).**

#### **SECCIÓN 8ª. Los Claustros de Sede**

#### **Artículo 21. Claustros de Sede**

1. Eskolaren Egoitzetan Egoitzako Klaustroak dira irakasleok parte hartu ahal izateko organoa.

2.- Egoitzetan zerbitzuak ematen dituzten irakasle guztiek osatuta dago Egoitzako Klaustro bakoitza.

Era berean, horrelako saioetan partaide izan daitezke Egoitzako Ikasketa Buruak aholkulari edo laguntzaile moduan gonbidatutako lagunak ere, landu beharreko gaiaren arabera.

## **22. artikulua. Klaustro Orokorren bilkurak**

1.- Eskolaren Egoitzetako Klaustroek bi bilkura mota egingo dituzte: Ohikoak eta ohiz kanpokoak; bilkurok presazkoak ere izan daitezke.

2.- Ohiko bilkurak, nahitaez, hilean behin izango dira eskola egutegia indarrean den bitartean. Ohiz kanpoko bilkurak Pedagogia Zuzendaritzak, Egoitzako Ikasketa Buruak deituta edo Egoitzako irakasleen hirurik batek, gutxienez, eskatzen duenean egingo dira. Azkenari dagokionez, eskabidea aurkeztu eta, gehienez ere, hurrengo bost egunean elkartuko da. Ohiko bilkurak eta ohiz kanpokoak egiteko aste bete lehenago jakinaraziko da.

3.- Egoitzako Klaustroa legez eratutzat joko da irakasle guztien erdiak gehi bat bertaratzuz gero. Quorum horri eutsi beharko zaio bilkura osoan erabakiak legezko izan daitezen. Nolanahi ere, Egoitzako Ikasketa Buruak edo Pedagogia Zuzendaritzak, edo legez haien ordezkoi direnek, nahitaez izan behar dute bileran.

## **23. artikulua. Egoitzako Klaustroaren funtzionamendua**

1.- Egoitzako Klaustroaren bilkuretara joaten direnek hizpidea eta erabakimena izango dituzte, lehendakaritzak eztabaida moderatu eta antolatuzko eskumena duen arren. Landutako gaiak, 24. artikuluan jasotako eskumenen barrukoak ez badira, kontsulta mailakoak izango dira.

2.- Egoitzako Klaustroaren bileretara joatea nahitaezkoa du kide den guztiak, Egoitzako Ikasketa Buruak ez joateko lizentzia edo baimena eman ez badio behintzat.

3.- Atotxako Egoitzako Klaustroan Atotxako Idazkaria izango da akta izenpetuko duena. Gainerak Egoitzetan egiten diren Klaustroetan dagokion Ikasketa Buruak izendatutako pertsonak jasoko du akta.

4.- Erabakiak bozketa agerikoan hartuko dira, Egoitzako klaustrokidaren batek bozketa sekretua eskatu ezean.

*1. Los Claustros de Sede son el órgano de participación del profesorado en las Sedes de la Escuela.*

*2.- Cada uno de los Claustros de Sede está integrado por la totalidad del profesorado que presta servicios en cada una de las Sedes.*

*Asimismo, asistirán a estas sesiones aquellas personas que sean invitadas por las Jefaturas de Estudios de Sede para colaborar y/o asesorar, dependiendo del tema que sea tratado.*

## **Artículo 22. Sesiones del Claustro de Sede**

*1.- Los Claustros de Sede de la Escuela funcionan en régimen de sesiones ordinarias y extraordinarias, que pueden ser además urgentes.*

*2.- Las sesiones ordinarias se celebrarán de forma preceptiva al menos una al mes durante el calendario escolar. Las sesiones extraordinarias se celebrarán cuando sean convocadas por la Dirección Pedagógica, la Jefatura de Estudios de Sede o cuando lo soliciten la tercera parte al menos del profesorado de la Sede. En el último supuesto, la celebración no podrá demorarse más de cinco días naturales desde que se solicitó. Las sesiones ordinarias y extraordinarias se convocarán con una antelación de una semana.*

*3.- Las sesiones del Claustro de Sede se constituirán válidamente con la asistencia de la mitad más uno del número total de las personas que lo componen. Este quórum deberá mantenerse durante toda la sesión para la validez de sus resoluciones. En todo caso se requiere la asistencia de la Jefatura de Estudios de Sede o de la Dirección Pedagógica.*

## **Artículo 23. Funcionamiento del Claustro de Sede**

*1.- En las sesiones de los Claustros de Sede, todas las personas que lo integran tendrán derecho a voz y voto, sin perjuicio de las facultades de la presidencia en cuanto a la moderación y ordenación del debate. Los asuntos tratados, que no estén dentro de las funciones recogidas en el artículo 24, tendrán carácter consultivo.*

*2.- La asistencia al Claustro de Sede será obligada para todas las personas que lo componen, salvo licencia o permiso de la Jefatura de Estudios de Sede.*

*3.- En el Claustro de la Sede de Atotxa será la Secretaria de Atotxa quien levante acta de cada sesión. En el resto de Claustros de Sede levantará acta la persona que designe la Jefatura de Estudios de la respectiva Sede.*

*4.- La adopción de acuerdos se produce mediante votación pública, salvo que cualquiera de las personas que componen el Claustro de Sede solicite votación secreta.*

5.- Araudi honek espezifikoki xedaturikoak izan ezik, akordioak onartuko dira aldeko botoen gehiengo hutsa edukita. Berdinketarik egotekotan, beste bozketa bat izango da eta, berdinketak bere hartan iraenez gero, Egoitzako Ikasketa Buruaren kalitate botoak erabakiko du.

6.- Onartutako akordioaren aurkako botoa eta hala bozkatzeko zioak jasoaraz ditzakete Egoitzako klaustrokideek. Hala bada, erabakiaren ondorioz izan litezkeen erantzukizunetik salbuetsirik geratuko dira.

## 24. artikulua. Egoitzako Klaustroaren zereginak

Hauexek dira Egoitzako Klaustroen zereginak:

- 1) Irakaskuntza/ikaskuntza prozesuan sortutako eragozpenak aztertzea eta haiei irtenbidea emateko proposamenak egitea.
- 2) Urteko Kudeaketa Planean (UKP) aintzat hartzeko, Egoitzan ikasleentzako jarduerak (kontzertuak, entzunaldiak..) eta irakasleentzakoak (ikastaroak, kongresuak, kontzertuak...) proposatzea.
- 3) Urteko Kudeaketa Planak Egoitzan duen ezarpen maila eta garapena ebaluatzea.
- 4) Eskolaren Hezkuntza Proiektuan (EHP), Eskolaren Curriculum Proiektuan (ECP), Antolamendu eta Funtzionamendu Araudian (AFA), Urteko Kudeaketa Planean eta Eskolaren Urteko Plana azaltzen duen txostenean egin beharreko edozein aldaketa eztabaidatzea eta gainbegiratzea eta aldaketa eta hobekuntza proposamenak aurkeztea.
- 5) Egoitzako Ikasketa Buruei, Eskola Kontseiluari eta Erakunde Autonomoaren Zuzendaritza Kontseiluari proposamenak, eskaerak, hobekuntzak, kezkak, txostenak eta abar aurkeztea, egoki iritziz gero.

## 9. ATALA. Kudeaketako Bulegoa eta Zerbitzuko Orokorrak

### 25. artikulua. Kudeaketako Bulegoa.

1.- Kudeaketako bulegoaren xede da Eskolaren kudeaketa estrategikoa egitea, zerbitzuen barnean sartuta Udalak sustatutako zeharkako politikak. Era berean, aholku eman eta Eskolako zerbitzu guztiak hobetzeko eginkizuna du, arreta berezia jarrita modernizazioa, berrikuntza, kalitatea eta zerbitzuen ebaluazioa sustatzean

2.- Aholkularitza juridikoa emango die gainerako zerbitzuei, eta zeharkako politiken koordinazioa eta kudeaketa eramango ditu zerbitzu guztietara.

5.- *Excepto los supuestos específicamente previstos por este Reglamento, los acuerdos se tomarán por mayoría simple de votos afirmativos. En caso de empate se efectuará una nueva votación y si persistiera el empate decidirá el voto de calidad de la Jefatura de Estudios de Sede.*

6.- *Las personas que integran el Claustro de Sede podrán hacer constar su voto contrario al acuerdo adoptado y los motivos que lo justifican. En este caso, quedarán exentas de la responsabilidad que, en su caso, pueda derivarse de dicho acuerdo.*

## Artículo 24. Funciones del Claustro de Sede

*Son funciones de los Claustros de Sede:*

- 1) *Analizar y proponer posibles soluciones a las dificultades que surgen en el proceso enseñanza-aprendizaje.*
- 2) *Proponer, para su inclusión en el Plan de Gestión Anual (PGA), actividades tanto para el alumnado (conciertos, audiciones...) como para el profesorado (cursos, congresos, conciertos...) en la Sede.*
- 3) *Evaluar la implantación y desarrollo del Plan de Gestión Anual (PGA) en la Sede.*
- 4) *Debatir y supervisar cualquier modificación en los documentos PEC, ROF, PCC, PGA y Memoria explicativa de la Gestión elevando al Claustro General propuestas de modificación y mejora.*
- 5) *Presentar cuantas propuestas, peticiones, solicitudes de mejoras, informes, etc. considere oportunas a las Jefaturas de Estudios de Sede, al Consejo Escolar de la Escuela y al Consejo Rector del Organismo Autónomo.*

## SECCIÓN 9ª. La Oficina de Gerencia y Servicios Generales

### Artículo 25. La Oficina de Gerencia

*3. El concurso de méritos constará de dos fases. En la primera fase se valorarán los méritos alegados por las personas que hayan presentado su candidatura. En la segunda fase se valorará la defensa de su Proyecto de Dirección Pedagógica, en el que deberá incorporar la propuesta de nombramiento de los Jefes de Estudios de Sede y la Secretaría de Atotxa.*

*4. Tras verse por el Claustro las candidaturas y propuestas de dirección presentadas, se constituirá una Comisión de Selección que estará formada de la siguiente manera:*

- La Gerencia del Organismo Autónomo, que ejercerá la Presidencia de la Comisión
- Tres representantes del profesorado de la Escuela elegidos por y entre las y los miembros del Claustro del mismo.
- Dos personas elegidas por y entre las y los miembros del Consejo Escolar que no pertenezcan al profesorado.

- Donostiako Udaleko Giza Baliabideen Zuzendaritzako teknikari bat edo Eskolaren Idazkari Teknikoa, Batzordeko Idazkaritza lanak egingo dituen eta hitz egiteko eta botoa emateko eskubideak izango dituen.

- *Una técnica o un técnico de la Dirección Recursos Humanos del Excmo. Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, o la Secretaría Técnica de la Escuela que ejercerá la Secretaría de la Comisión con voz y voto.*

Hautaketa Batzordean ezin dute inolaz ere parte hartu beren hautagaitza aurkeztu duten irakasleek.

*En ningún caso podrán formar parte de la Comisión de Selección el profesorado que haya presentado su candidatura*

5. Organo eskumendunak izendatuko ditu hautatuak dagozkion karguetarako, izendapenak lau urte iraungo du eta merezimendu lehiaketaren deialdia ebatzen den urteko irailaren 1etik aurrera izango du eragina.

*5. El órgano competente nombrará en su cargo a la persona seleccionada, con efectos de 1 de septiembre del año de la resolución de la convocatoria del concurso de méritos, y por una duración de cuatro años.*

6. (Ezabatuta)

*6. (Suprimido).*

7. Pedagogia Zuzendaritzarako hautagairik ez badago, Eskolaren Kudeatzaileak egingo du kide bakarreko organo horretarako izendapen proposamena, gehienez ere urte bateko iraupenarekin. Hurrengo merituen lehiaketan berriz ere hutsik geratu den karguaren deialdia egingo da.

*7. En caso de no existir candidaturas a la Dirección Pedagógica, el nombramiento de este órgano unipersonal de dirección se realizará por la Gerencia por un periodo máximo de un año. En el siguiente concurso de méritos volverá a convocarse el cargo vacante.*

## **56. bis. artikulua. Gainontzeko pedagogia zuzendaritza karguen izendapen eta kargu uztea prozedura.**

## **Artículo 56.bis. Proceso para nombramiento y cese del resto de los cargos de dirección pedagógica.**

1. Gainontzeko pedagogia zuzendaritza karguen izendapen eta kargu uzte proposamenak araudi honetan ezarritakoaren arabera egingo dira.

*1. Las propuestas para el nombramiento y cese del resto de los órganos unipersonales de dirección pedagógica se realizará de acuerdo con lo previsto en el presente reglamento.*

2. Pedagogia Zuzendaritzak, irakasleen Klaustroari eta Eskola Kontseiluari jakinarazi ondoren, Kudeatzaileari Egoitzetako Ikasketa Buruen eta Atotxako Idazkariaren izendapen eta kargu uzte proposamenak egingo dizkio, Eskolako irakasle direnen artean.

*2. La dirección pedagógica, previa comunicación al Claustro de profesores y al Consejo Escolar, formulará propuesta de nombramiento y cese a la Gerencia de los cargos de Jefatura de Estudios de Sede y Secretaría de Atotxa de entre el profesorado del Centro.*

3. Zuzendaritza Pedagogikoak proposatutako zuzendaritza pedagogikoko karguek beti bete beharko dute Eskolak ematen dituen oinarrietan zehazten den lanbide-profila (hizkuntza-eskakizuna, esperientzia...).

*3. Los cargos de dirección pedagógica propuestos por la Dirección Pedagógica deberán cumplir en todo caso el perfil profesional (perfil lingüístico, experiencia...) que se determine por las bases que dicte la Escuela.*

4. Zuzendaritza-taldeko kide guztiek kargua utziko dute agintaldia amaitzean edo Zuzendaritza Pedagogikoak kargua uzten duenean.

*4. Todos los miembros del equipo directivo cesarán en sus funciones al término de su mandato o cuando se produzca el cese de la Dirección Pedagógica.*

5. Salbuespenezko kasuan, Zuzendaritza Pedagogikoak ez badu hilabeteko epean bere izendapenetik, Egoitzako Ikasketa Buruen edota Atotxako Idazkariaren karguen izendapenik proposatzen, Kudeatzailea izango da Eskolako irakasleen artean kargu hauek izendatuko dituen, Pedagogia Zuzendaritaren agintaldiak irauten duen epe berdinerako.

*5. En el caso extraordinario de que la Dirección Pedagógica no propusiera ningún nombramiento en el plazo de un mes desde su nombramiento para los cargos de alguna de las Jefatura de Estudios de Sede y/o Secretaría de Atotxa, el Gerente nombrará dichos cargos de entre el profesorado del Centro por el mismo periodo de mandato de la Dirección Pedagógica.*



## 1. ATALA. Lanaldia

### 57. artikulua. Irakasleen lanaldia

Irakasleen lanaldian eskola egunak eta eskolarik gabeko egunak bereiziko dira.

-Eskola egunak, Hezkuntza Administrazioak ematen dituen irizpideen arabera kopuruan. Eskola eguntzat joko dira eskola ematekoak, proba pedagogikoak eta Eskola Egutegian jasotako alorreko zaindariaren jaiegunak.

-Eskolarik gabeko egunak, hitzarmenean finkatzen den egutegia betetzeko falta diren gainerako egunak izango dira. Eskolaz kanpoko garaikoak izango dira, eta birziklatze ikastaroak, proiektuak, txostenak, eskolaz kanpoko jarduerak eta abar gauzatzeko erabiliko dira.

### 58. artikulua. Irakasleen lanaldiaren kontzeptuak

1.- Irakasleen asteko lanaldia Eskolaren Urteko Kudeaketa Planean jasoko da eta kontzeptu hauen arteko bereizketa egingo da.

1) Eskola orduak: Onartutako eskola egutegiaren barruan, eskola teorikoak edo praktikoak emateko eta era guztietako probak, ahozkoak, idatzizkoak, instrumentalak, dantza probak eta abar, egiteko erabiliko direnak.

Eskolarik gabeko orduak: asteko lanaldia osatu arteko orduak dira. Eskolak prestatzeko, ariketak eta jarduerak prestatzeko eta ebaluatzeko, jarduera osagarriak prestatzeko eta egiteko, departamentuko bileretara joateko, tutoretzarako, ebaluazio bileretarako, gurasoekin bilerak egiteko, kide anitzeko organoetan parte hartzeko, kultur jardueretarako, entzunaldietarako, ikerketarako eta abarrerako erabiliko dira.

2.- Hitzarmenean jasoko den bezala, ordu kopuru bat egongo da, gainerako langile publikoekin parekatu artekoa, profesionaltasuna mantentzeko, irakaslanak dituen eginkizunak betetzeko eta zerbitzuaren ordutegien espezifikotasuna konpentsatzeko.

### 59. artikulua. Ordu murrizketak zuzendaritza ardurak izateagatik

Zuzendaritza arduraren bat (Pedagogia Zuzendaritza, Egoitzeko Ikasketa Buruak eta Atotxako Idazkariak) duten irakasleei eskola orduen murrizketa eta lansari osagarria izendatuko zaizkie, hitzarmenean eta Erakunde

## SECCIÓN 1ª. La jornada laboral

### Artículo 57. Jornada laboral personal docente

*La jornada laboral del personal docente se dividirá en días lectivos y días no lectivos.*

*-Días lectivos, cuyo número se adecuará a los criterios emanados de la Administración educativa. Se considerarán días lectivos, aquellos en los que existan clases, además de los días dedicados a pruebas pedagógicas y los días patronales festivos reflejados en el Calendario Escolar.*

*-Días no lectivos, cuyo número completará hasta llegar a los días reflejados en el convenio. Estarán comprendidos en periodo no escolar y serán utilizados para cursos de reciclaje, elaboración de proyectos, memorias, actividades extraescolares, etc.*

### Artículo 58. Conceptos de la jornada laboral de los docentes

*1.- La jornada semanal del personal docente será recogida en el Plan de Gestión Anual, distinguiéndose los siguientes conceptos:*

*1) Horas lectivas, que serán las utilizadas para impartir clases teóricas o prácticas y para la realización de todo tipo de pruebas: orales, escritas, instrumentales, de danza etc.. dentro del calendario escolar debidamente aprobado.*

*2) Horas no lectivas, que serán las utilizadas hasta completar la jornada semanal para la preparación de clases, preparación y evaluación de ejercicios y actividades, programas de actividades complementarias y su realización, asistencia a reuniones de departamento, tutorías, reuniones de evaluación, reuniones con padres y madres, participación en órganos colegiados, realización de actividades culturales, audiciones, investigación, publicación, etc.*

*2.- Conforme a lo recogido en el Convenio, existirá un número de horas, hasta equiparar al resto de las personas trabajadoras públicas, que será para el mantenimiento de la profesionalidad, atención a todos aquellos deberes inherentes a la función docente y como compensación por la especificidad de los cuadros horarios del servicio.*

### Artículo 59. Reducciones horarias por cargos

*Los profesores o las profesoras que ostenten uno de los siguientes cargos: Dirección Pedagógica, Jefaturas de Estudios de Sede y Secretaría de Atotxa gozarán de la reducción de horas lectivas y retribuciones*

Autonomoaren lanpostuen zerrendan zehazturikoaren arabera.

Eskola orduak murriztu ahal izango dira Eskolarentzat interes orokorrekoak diren proiektu espezifikoak egiteko. Nolanahi ere, Pedagogia Zuzendaritza Taldeak onartu behar ditu proposamen horiek, Kudeatzaileak finkatzen dituen mugekin, betiere Eskolaren eta Udalaren helburu estrategikoekin bat eginik.

## 2. ATALA. Ordutegiak

### 60. artikulua. Ordutegiak prestatzeko prozesua

1.- Ordutegiak prestatzeko prozesua eta horiek kontrolatzea Ikasketa Buruen ardura da, eta, irakasleekin lankidetzan jardunda, Pedagogia Koordinatzaile Orokorrari proposatu beharreko borradore prestaturiko dute; Pedagogia Zuzendaritzak ordutegiak alda ditzake Araudi honetan xedaturikoen, aurretik erabakitako irizpideen edo Eskolaren interesen arabera egokiak ez direla egiaztatuz gero.

2.- Ordutegiak egiterakoan honako urrats hauek egin beharko dituzte:

- 1) Irizpideen eta jarraibide nagusien definizioa Egoitzako Klaustroek aztertuko dute.
- 2) Pedagogia Zuzendaritza Taldeak zehaztuko ditu irizpide aplikagarriak, eta irakasleei helaraziko dizkie nork bere ordutegia presta dezan.
- 3) Irakasle bakoitzak bere ordutegia bidaliko dio Egoitzako Ikasketa Buruari, hark denak aztertu eta zailtasunak konpon ditzan.
- 4) Pedagogia Zuzendaritzak aztertuko ditu ordutegiak, eta aldaketak egiteko eskumena izango du.
- 5) Azkenik, Erakunde Autonomoaren Kudeatzaileari bidaliko dizkiote, hark ontzat eman eta Eranskin moduan Eskolaren Urteko Kudeaketa Planari erants diezazkion.

3.- Irakasleen eguneroko irakastaldia beteko da Egoitza bakoitzeko ordu aukeraren arabera, betiere Eskolaren Urteko Kudeaketa Plana eta ikasleen ezaugarriak kontuan harturik.

## 3. ATALA. Eskubideak eta betebeharrak

### 61. artikulua. Irakasleen eskubideak

Lan alorreko legeek onarturikoez gain, irakasleek honako eskubide hauek edukiko dituzte:

*complementarias que se fije en el convenio y en la relación de puestos de trabajo del Organismo Autónomo.*

*Podrán existir reducciones de horas lectivas para la realización de proyectos específicos, de interés general para la Escuela, que serán en todo caso aprobados por el Equipo Directivo Pedagógico con los límites que la Gerencia determine adecuándose a los objetivos estratégicos de la Escuela y del Ayuntamiento.*

## SECCIÓN 2ª. Los horarios

### Artículo 60. Proceso de confección de los horarios

*1.- El proceso y control de la confección de los horarios corresponde a las Jefaturas de Estudios de Sede, quienes, en colaboración con el profesorado, realizarán un borrador que será propuesto a la Dirección Pedagógica, quién tendrá la facultad de modificarlo, si comprobara que no se ajusta a lo dispuesto en este Reglamento, a los criterios previamente establecidos o a los intereses de la Escuela.*

*2.- Para dicha confección de horarios se realizarán los siguientes pasos:*

- 1) La definición de los criterios y líneas maestras a seguir serán discutidos en los Claustro de Sedes.*
- 2) El Equipo de Dirección Pedagógica definirá los criterios aplicables que serán remitidos al profesorado para que confeccione su horario particular.*
- 3) Todos los horarios particulares de cada profesora y profesor serán remitidos a la Jefatura de Estudios de Sede, para que los estudie y solucione los casos conflictivos.*
- 4) Los horarios serán supervisados por la Dirección Pedagógica quien tendrá la facultad de modificarlos.*
- 5) Finalmente serán elevados a la Gerencia del Organismo Autónomo, para que dé el visto bueno y sean incorporados como un Anexo al Plan de Gestión Anual.*

*3.- La jornada lectiva diaria del personal docente se realizará según la disponibilidad horaria de cada Sede, ajustándose siempre al Plan de Gestión Anual y a las características del alumnado.*

## SECCIÓN 3ª. Derechos y deberes

### Artículo 61. Derechos del profesorado

*Son derechos del profesorado, además de los reconocidos en materia laboral, los siguientes:*

- 1) Instalazioak bakoitzak bere eginkizunerako erabiltzea eskola zabalik dagoen bitartean.
- 2) Beren ordutegiak prestatzea Eskolaren irizpideen arabera.
- 3) Beren eginkizunak betetzeko behar duten materiala edukitzea.
- 4) Segurtasun eta higiene baldintza egokietan irakastea.
- 5) Eskola Kontseiluan Klaustroaren ordezkari izango diren pertsonak aukeratzea.

## **62. artikulua. Irakasleen betebeharrak**

Lan harremanaren ondoriozkoek gain, irakasleek honako betebeharrak hauek edukiko dituzte:

- 1) Eskola ordutegia atzerapenik gabe betetzea.
- 2) Eskoletan ordena, diziplina eta aprobetxamendua sustatzea eta arduradun eskudunari gertatzen diren gorabehera guztien berri ematea.
- 3.- Ikasleari eman beharreko txostenak, ikaslearen bilakabidea jasotzekoak, prestatzea. Halaber, esleitzen dizkieten ikasleen tutorea izatea.
- 4) Ikasleak, gurasoak, tutoreak edo ikasleen legezko pertsona arduradunak hartzeko ordutegiak finkatzea.
- 5) Laneko zereginei buruz eskatzen dizkieten txostenak egitea eta ematea.
- 6) Irakasle Klaustro Orokorren eta Egoitzako Klaustroen ebaluazio saio, pedagogia bilkura eta irakasle lana dela eta, deituriko bestelako bilkuretara ere agertzea.
- 7) Eskolaren arauak betetzea, instantzia egokietara jotzeko eskubidea izanda kalterean bat jaso dutela iritziz gero.
- 8) Aukeratzen edo izendatzen badituzte, karguak onartzea, Eskolaren araudiaren arabera.

## **4. ATALA. Tutorea**

### **63. artikulua. Tutorea**

Ikasle guztiek tutore bana izango dute, Eskolako ikasketan laguntzeko. Pedagogia Zuzendaritzak bestela ebatzi ezean, honako tutore izendapena egongo da indarrean:

- 1) Irakasgai bakarreko ikasleak irakasgai horretako irakaslea izango du tutore.

- 1) *Hacer uso de las instalaciones, para la función que desempeña, durante todo el tiempo de apertura del centro.*
- 2) *Elaborar sus horarios, respetando las directrices del Centro.*
- 3) *Disponer del material necesario para ejercer correctamente su función.*
- 4) *Desarrollar su actividad académica en las debidas condiciones de seguridad e higiene.*
- 5) *Elegir las personas que lo representen en el Consejo Escolar.*

## **Artículo 62. Obligaciones del profesorado**

*Son obligaciones del profesorado, además de las que se derivan de su relación laboral, las siguientes:*

- 1) *Desempeñar puntualmente su horario de clases.*
- 2) *Mantener el orden, disciplina y aprovechamiento dentro de las clases, dando cuenta a la persona responsable competente, de cuantas anomalías ocurran en ella.*
- 3) *Elaborar los informes que serán entregados al alumnado, en el que conste la evolución del mismo. Asimismo, ejercer la tutoría de los alumnos y las alumnas que le sean encomendados.*
- 4) *Fijar horarios de atención al alumnado o padres, madres, tutores y tutoras o personas responsables legales del alumnado.*
- 5) *Entregar cuantos informes le sean requeridos con relación a su trabajo.*
- 6) *Concurrir a las sesiones de Claustro General y de Sede, sesiones de evaluación, reuniones pedagógicas y a cuantas reuniones sea convocado en relación con su tarea docente.*
- 7) *Cumplir las normas del Centro, sin perjuicio de recurrir a las instancias oportunas, si se consideran perjudicadas o perjudicados.*
- 8) *Aceptar los cargos para los que se les elija, según la normativa del Centro.*

## **SECCIÓN 4ª. La persona tutora**

### **Artículo 63. La persona tutora**

*Todo alumno y toda alumna tendrá un tutor o tutora que le asesorará en sus estudios dentro de la Escuela. Salvo resolución expresa de la Dirección Pedagógica, se establece la siguiente asignación de tutoría:*

- 1) *Alumnado con una sola asignatura, el profesor o la profesora de la misma.*

2) Irakasgai bat baino gehiago duen ikasleak irakasgai nagusiko irakaslea izango du tutore. Hauek izango dira, hurrenkera honetan berean, irakasgai nagusiak: Tresna espezialitatea, dantza, tresna espezialitateak ez direnak eta beste irakasgaiak.

2) *Alumnado con más de una asignatura, el profesor o la profesora de la asignatura principal, considerándose ésta en este orden: especialidad instrumental, danza, otras especialidades no instrumentales, otras asignaturas.*

Tutore egiten duen irakaslearen eginkizunak:

*Son funciones del profesor o profesora que ejerza la tutoría:*

1) Ikasleei eta haien legezko pertsona arduradunei orientabideak eta aholkularitza eskaintzea hezkuntza aukera eta hautabideen gainean.

1) *Orientar y asesorar al alumnado y/o a las personas responsables legalmente del mismo, sobre las posibilidades y alternativas educativas.*

2) Irakats prozesua behar bezala bideratzen dela zaintzea, ikaslearen nortasunaren, interesen eta Eskola integrazioaren jakitun egonda.

2) *Velar por el buen desarrollo del proceso educativo a través del conocimiento de la personalidad y los intereses del alumnado y de su grado de integración en la Escuela.*

3) Etengabe ikasleen ebaluazioen jakitun egotea eta ikasleei eta haien legezko pertsona arduradunei Eskolaren Urteko Kudeaketa Planean finkatutako edukiaren berri ematea.

3) *Efectuar un seguimiento continuo de las evaluaciones de su alumnado e informar al alumnado y/o a las personas legalmente responsables del mismo según las directrices establecidas en el Plan de Gestión Anual.*

4) Egoitzako Ikasketa Buruekin batera, ikasleen asistentzia kontrolatzea.

4) *Controlar, en colaboración con las Jefaturas de Estudios de Sede, la asistencia del alumnado.*

### III. TITULUA. IKASLEAK

### TÍTULO III. DEL ALUMNADO

#### 1. ATALA. Eskubideak eta betebeharrak

#### SECCIÓN 1ª. Derechos y deberes

##### 64. artikulua. Erreferentzia esparrua

##### Artículo 64. Marco de referencia

1.- Ikasle guztiak dira eskubide eta betebeharrak berberen jabe. Haiek erabiltzerakoan ikaslearen adina, zikloa eta irakasmaila kontuan izango dira.

1.- *Todo el alumnado tiene los mismos derechos y deberes. Su ejercicio se adaptará a la edad, al ciclo y nivel de las enseñanzas que se encuentren realizando.*

2.- Ikasleek beren eskubideak erabiliko dituzte eskola komunitateko gainerako kideen eskubideen onarpenari eta begiruneari kalterik egin gabe.

2.- *El alumnado ejercerá sus derechos sin perjuicio del reconocimiento y respeto de los derechos del resto de las personas que componen la comunidad educativa.*

3.- Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolako kide guztiek aitortu eta errespetatu behar dituzte Araudi honek ikasleei aitortzen dizkien eskubideak.

3.- *Todas las personas que componen la Escuela Municipal de Música y Danza de San Sebastián tienen el deber de reconocer y respetar los derechos del alumnado recogidos en este Reglamento.*

4.- Hezkuntzako Administrazioak eta Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolako Gobernu Organoek bermatuko beharko dute, zeinek bere eskumenen eremuan, Araudi honetan jasotako ikasleen eskubideak eta betebeharrak behar bezala eta zorrotz betetzen direla.

4.- *La Administración educativa y los órganos de gobierno de la Escuela garantizarán, en sus respectivos ámbitos de competencia, el correcto ejercicio y la estricta observancia de los derechos y deberes del alumnado en los términos previstos en este Reglamento.*

##### 65. artikulua. Ikasleen eskubideak

##### Artículo 65. Derechos del alumnado

Eskolako ikasleek honako eskubide hauek izango dituzte:

*El alumnado del centro tendrá derecho a:*

1) Kalitateko irakaskuntza jasotzea eta eskolan helburu hori lortzeko dauden bitartekoak erabiltzea.

1) *Recibir una enseñanza de calidad y a utilizar los medios materiales que para dicha finalidad se encuentren en el centro.*

2) Matrikulatu aurretik Eskolaren Hezkuntza Proiektuaren (EHP), Antolamendu eta Funtzionamendu Araudiaren (AFA), Eskolaren Urteko Kudeaketa Planaren (UKP) eta ikasi nahi dituzten gaien gaineko jakingarrien (ordutegiak, ikasketa programak eta abar) argibideak jasotzea.

3) Pertsonaren osotasun fisikoa, psikikoa, morala eta duintasun moralarenganako errespetua jasotzea, inondik inora tratu txar edo itsusgarririk izan gabe, ezta tratu txar fisiko edo moralik dakarren zigorrik jaso ere.

4) Eskola etekina objektibotasunez baloratzea.

5) Ekimen, iradokizun eta erreklamazio mota guztiak egin ahal izatea iradokizun postontzia, tutorearekiko edo Egoitzako Ikasketa Buruarekiko bilkurak, Gurasoen eta Ikasleen Elkarteak, Eskola Kontseilua eta abar erabilita.

6) Xedaturiko eskola ordutegia errespetatzea eta irakaskuntza bertan behera utzi edo aldatuz gero, gutxienez ere bi egun lehenago argibideak jasotzea, ezinbestekorik gertatu ezean. Nolanahi ere den, Eskolak ikasturteko 30 saio ematea bermatuko du astean behin ematen diren irakasgaietan, eta kopuru proportzionalen bestelako maiztasunarekin ematen diren irakasgaietan.

Dena delakoagatik halako egun jakin batzuetan eskolara ikasle gutxi etorri arren, Musika Eskolak eta irakasleak, halere, eskolak eman beharko dituzte.

7) Irakasleen eskola eta tutoretza orduak ezagutzea.

8) Segurtasun eta higiene baldintza egokietan ikastea.

9) Irakasgai eta irakaskuntza mailetara sartzeko aukera berdintasuna, mugakizun bakarrak etekina eta ikasteko gaitasuna izango direla.

10) Aldian-aldean norberaren ikasketen bilakabidearen gaineko argibideak jasotzea.

Irakasleak ahoz zein idatziz –hiruhileko nota buletinean– ikaslea eta adinez txiki den ikaslearen legezko arduradunak ikaslearen ikasketen bilakabidearen jakitun jarri beharko ditu.

2) *Recibir información, antes de la matriculación, del Proyecto Educativo del Centro (PEC), del Reglamento de Organización y Funcionamiento (ROF), del Plan de Gestión Anual (PGA) así como de todos los extremos concernientes a las materias que desee cursar (horarios, programas de estudio etc.).*

3) *Respeto a su integridad física, psíquica, moral y en su dignidad personal, no pudiendo ser objeto, en ningún caso, de tratos vejatorios o degradantes, ni de sanciones que impliquen maltrato físico o moral.*

4) *Que su rendimiento escolar sea valorado con objetividad.*

5) *Formular todo tipo de iniciativas, sugerencias y reclamaciones por medio del buzón de sugerencias, reuniones con la persona tutora o la Jefatura de Estudios de Sede, Asociaciones de Padres y Madres y del Alumnado, Consejo Escolar, etc.*

6) *Que se respete el horario académico establecido y, en los supuestos de suspensión o cambios de la actividad docente, a que se le notifique con una antelación mínima de dos días, salvo supuestos de fuerza mayor. En cualquier caso, la Escuela garantizará la impartición de 30 sesiones por curso escolar en las asignaturas que se impartan una vez por semana y el número proporcional en aquellas que tengan otra periodicidad.*

*El hecho de que, por unas razones u otras, asista un pequeño número de alumnos o alumnas en determinados días no exime a la Escuela de Música y al profesorado de impartir esas clases.*

7) *Conocer el horario de clase y de tutorías de sus profesores y profesoras.*

8) *Que su actividad académica se desarrolle en las debidas condiciones de seguridad e higiene.*

9) *Tener las mismas oportunidades de acceso a las asignaturas y a los distintos niveles de enseñanza, sin más limitaciones que las derivadas de su aprovechamiento o de sus aptitudes para el estudio.*

10) *Recibir información regularmente sobre la evolución de sus estudios.*

*El profesorado deberá informar al alumnado o a sus responsables legales en casos de menores de edad, tanto verbalmente, como por escrito, en el boletín de notas trimestrales, de la evolución de sus estudios.*

Gainera, ikaslearen pertsona arduradunei ohar idatzien bitartez gelako gorabeheren berri eman diezaieke.

11) Gobernu organoek hartutako erabakiekin konforme ez egotea.

Desadostasuna eskolara ez joateko proposamenaren bitartez adierazi nahi izanez gero, honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Eskolara ez joateko proposamena, nolana ere den, ikasleen partaidetza espezifiko artikulatzen duen organoak egin beharko du, berez, Eskolan matrikulaturiko ikasleen %5ek eskatuta edo legez eraturiko ikasleen elkartearen zein batzarren ordezkariak adierazita.

b) Eskolara ez joateko proposamen behar bezala arrazoitua idatziz aurkeztu beharko dute, gutxienez, deitzaileek aukeraturiko data baino bi lanegun lehenago, eta idatzian deitzailea, eguna, orduak eta programaturiko ekintzak adierazi beharko dituzte.

c) Salbuespen moduan, lanegun bat lehenago ohartarazita ere egin liteke, deitzaileek presaren zergatikoak azalduta.

f) Ikasleen partaidetza eskolan bideratzen duen organoak berehala jakinaraziko dizkie proposamenak Kudeatzaileari eta Eskolako ikasleei.

g) Eskolara ez joateko proposamena ikasleei aurkeztuko diete, haiek, gehiengo absolutuz eta bozketa isilpekoan erabaki dezaten, ordezkariak edo delegatuek eskolara ez joateko proposamenaren zergatikoei buruzko argibideak eman ondoren.

f) Bozketen aktak egin beharko ditu ikasleen partaidetza espezifiko artikulatzen duen organoaren kide batek, ondokook jasotzeko:

*Asimismo, podrá informar a las personas responsables legales del alumnado de las incidencias de las clases por medio de notas escritas.*

*11) Discrepar de las decisiones tomadas por los órganos de gobierno.*

*En caso de que la discrepancia se manifieste con una propuesta de inasistencia a clase, deberá cumplir los siguientes requisitos:*

*a) La propuesta de inasistencia a clase deberá ser realizada en todo caso por el órgano que articule la participación específica del alumnado, bien por propia iniciativa o bien a instancia de al menos un 5% del alumnado matriculado en el Centro o de las personas que representen a las Asociaciones o Asambleas del alumnado legalmente constituidas.*

*b) La propuesta de inasistencia a clase, debidamente razonada, se realizará por escrito con una antelación mínima de 2 días hábiles sobre la fecha prevista por quienes la convoquen, indicando quién convoca, fecha, hora de celebración y actividades programadas.*

*c) Excepcionalmente se podrán realizar con una antelación de un día hábil, debiéndose justificar por quienes la convoquen los motivos de la urgencia.*

*f) El órgano que articule la participación del alumnado en el Centro dará inmediato traslado de las propuestas tanto a la Gerencia como al alumnado del Centro.*

*g) La propuesta de inasistencia a clase se presentará al alumnado para su aprobación o rechazo en votación secreta y por mayoría absoluta, informado previamente a través de sus delegados o delegadas o de las personas que representen el contenido de la propuesta de inasistencia a clase.*

*f) De las votaciones efectuadas se levantarán actas que estarán suscritas por una persona que forme parte del órgano que articule la participación específica del alumnado en las que se expresará lo siguiente:*

Tokia, hasiera ordua, ikasle kopurua, partaideak, aldeko/aurkako botoak eta abstentzioak, bozketaren emaitza, eskolara joateko proposamena onartzen den ala ez berariaz adieraztea, eta amaiera ordua.

g) Ikasleen partaidetza artikulatzen duen organoaren lehendakariak ahalik eta arinen helaraziko dizkio aktak Eskolako Kudeatzaileari, ahal dela, 24 ordu lehenago, eta, presazko deialdia balitz, 12 ordu lehenago.

h) Eskolako Kudeatzaileak prozedura guztiaren jakitun jarriko du Eskola Kontseilua, berak bermatu beharko baitu dena beha bezala betetzea hurrengo ataletan azaltzen direnak betetzeari begira.

i) Aurreko atalean adierazitako irizpideak betez gero, eskola huts egiteak ez du diziplina ondorioz izango, baina adin txikikoen legezko pertsona arduradunei jakinaraziko diete telefonoz.

j) Nolanahi ere den, Eskolak bermatuko du eskolara doazenek duten eskubidea, eta irakasleek behar bezala artatuko dituzte, irakasgaiei dagozkien ekintzak egiteko.

k) Irakasleek eskolara ez joateko eskubidea erabiltzeak ez ditu irakasleak behartuko eskolara ez joandako egunean landutako eskola programaren zatia berriro azaltzera.

*Lugar, hora de comienzo, número de alumnos y alumnas, de asistentes, votos afirmativos, negativos y abstenciones, resultado de la votación, con expresión de si se aprueba o se rechaza la propuesta de inasistencia a clase y la hora a la que finaliza.*

*g) La Presidencia del órgano que articule la participación del alumnado dará inmediato traslado de dichas actas a la Gerencia del Centro, a ser posible, con una antelación de 24 horas, que se reducirán a 12 en el caso de urgencia.*

*h) La Gerencia del Centro pondrá todo este procedimiento en conocimiento del Consejo Escolar del Centro, que actuará como garante de su cumplimiento a los efectos previstos en los siguientes apartados.*

*i) Las faltas de asistencia, cuando se cumplan los requisitos establecidos en el apartado anterior, no serán computadas a efectos disciplinarios, pero se comunicarán las personas representantes legales del alumnado menor de edad, por medio de llamadas telefónicas.*

*j) En cualquier caso, el Centro garantizará el derecho de quienes no deseen secundar la inasistencia a clase, a permanecer en el mismo debidamente atendidos por el profesorado correspondiente, realizando actividades propias de las asignaturas.*

*k) El ejercicio por parte del alumnado del derecho a la inasistencia a clase no supondrá para el profesorado la obligación de repetir las explicaciones de la parte correspondiente del programa escolar afectada por la inasistencia a clase.*

## **66. artikulua. Ikasleen betebeharrak**

Honako betebeharrak dituzte ikasleek:

- 1) Eskolaren araudia onartzea eta betetzea.
- 2) Eskola komunitateko gainerako kideen eskubideak eta askatasunak errespetatzea.

## **Artículo 66. Obligaciones del alumnado**

Son obligaciones del alumnado las siguientes:

- 1) Aceptar y cumplir la normativa del Centro.
- 2) Respetar el ejercicio de los derechos y libertades del resto de las personas que componen la comunidad educativa.

3) Eskolak xedatutako epeetan tasak eta ordainak behar bezala ordainduta edukitzea. Eskolak onartutako edozein prezio publiko (matrikula, hileko kuota, material, etab. ) ez ordaintzeak, Eskolako ikasle izateari uztea ekar dezake.

4) Helbide edo beste datu pertsonalen aldaketan berri ematea.

5) Irakasleak Eskolaren jarduera ohikoan eragina izan dezakeen ezein gorabeheren jakitun jartzea.

6) Zentroaren ondasun higiezinak, instalazioak eta materiala behar bezala erabiltzea, behar bezala ez erabiltzearen ondorioz egindako kalteak konpondu eta halakoan erantzukizuna izango duela.

7) Onartzea Eskolak, berak antolatzen dituen ekitaldi publikoen soinua eta irudia hartzea, berak erabiltzeko edo bere buruaren aurkezpenak egiteko. Ikasleek ez dute horren truke ezeren diru ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

## 67. artikulua. Ikasteko obligazioa

Ikasleen oinarritzko betebeharrak da ikastea, eta honako obligazio hauek ditu muintzat:

1) Matrikula egindako irakasgaietarako eskolak eta partaide den taldeen entseguak hutsik ez egitea eta ezarritako ordutegiak betetzea.

2) Ikasten behar beste denbora eta lan ematea, hartutako lezioak behar bezala aprobetxatzen dituztela erakusteko.

3) Hartutako lezioak behar bezala aprobetxatzen ez dituela egiaztatuz gero, ikasleak galdu ahal izango du matrikula berritzeko eskubidea.

Horretarako, prozedura honako hau izango da:

1. Hartutako lezioak aprobetxatzen ez dituen irakasgaiko irakasleak horren berri emango dio tutoreari, eta tutoreak ikaslearekin edo bere familiarekin aztertuko du gaia.

2. Egoerak bere horretan jarraitzen badu, Egoitzako Ikasketa Buruak idatzi bat helaraziko dio ikasleari zerbitzua ez dela aprobetxatzen ari

3) *Abonar en el plazo marcado por el Centro, los precios públicos correspondientes. El impago de cualquiera de los precios públicos aprobados por la Escuela (matrícula, mensualidad, material, etc.) podrá conllevar la baja como alumno o alumna en la Escuela.*

4) *Comunicar los cambios de domicilio y demás datos personales.*

5) *Comunicar al profesorado de cualquier circunstancia que pueda afectar al normal desarrollo de su actividad en el Centro.*

6) *Respetar y utilizar correctamente los bienes, instalaciones y el material del Centro, reparando y respondiendo por los daños que causen por uso indebido de los mismos.*

7) *Aceptar que la Escuela realice grabaciones audiovisuales en los actos públicos que organice, para uso propio, así como para su autorrepresentación. Por ello, el alumnado no tendrá derecho a compensación económica alguna.*

## Artículo 67. Obligatoriedad del estudio

*El estudio constituye un deber básico del alumnado que se concreta en las obligaciones siguientes:*

1) *Asistir puntualmente a las clases de las asignaturas que cursen así como a los ensayos de las agrupaciones o conjuntos en los que participe y respetar los horarios establecidos.*

2) *Dedicar al estudio el tiempo y la dedicación que éste requiere, acreditando el buen aprovechamiento de las enseñanzas recibidas.*

3) *En caso de constatarse una notoria falta de aprovechamiento de las enseñanzas recibidas, un alumno o alumna podrá perder su derecho a la renovación de matrícula:*

*Para ello, el procedimiento será el siguiente:*

1. *El profesor o profesora de la asignatura en la que se da el desaprovechamiento de las enseñanzas recibidas, informará al tutor o tutora, quien tratará el tema con la alumna o alumno o su familia.*

2. *Si la situación persiste, las Jefaturas de Estudios de Sede remitirá a la alumna o alumno una comunicación escrita informando del*



esanez eta hurrengo ikasturtean irakasgai horretan matrikulatzeko eskubidea galdu dezakeela azalduz.

3) Arazoa konpontzen ez bada, Egoitzako Ikasketa Buruak jakinaraziko dio ikasleari galdu egin duela matrikula berritzeko eskubidea.

4) Eskolak antolatutako ekintzetan parte hartzea, entseguak eta behar diren gainerako prestaketak barne, ikasketaren partetzat hartuta ekintza horiek. Ekintza horietan parte hartzea derrigorra izango da Pedagogia Zuzendaritzak edo ekintzarekin lotutako ikasgaiko irakasleak ikasleak parte hartu edo lagundu dezan eskatuz gero eta ekintzak behar bezala programatuta, baimenduta eta garaiz jakinarazita izanez gero.

## 2. ATALA. DIZIPLINA ARAUBIDEA

### 68. artikulua. Arau hausteak

1.- Ikasleen arau hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

2.- Arau hauste arinak:

- a) Garaiz ez heltzea behin baino gehiagotan zio funtsaturik ez dagoela.
- b) Asistentzia huts funtsatu gabeak eta noizean behingoak.
- d) Behar ez bezala erabiltzearen ondorioz kalte ez larriak egitea Eskolaren lokalei, materialari edo dokumentuei.
- d) Justifikatu gabeko beste edozein ekintza, banakoa edo taldekoa, baldin eta ikastetxeko ohiko jarduna modu arinean aldatzen badu.

3.- Arau hauste larriak dira:

- a) Eskola Komunitateko kideen aurkako diziplinarik ezezko, irainezko edo ofentsa ekintza.
- b) Behar ez bezala erabiltzearen ondorioz kalteak egitea Eskolaren lokalei, materialari edo dokumentuei do Eskola Komunitateko gainerako kideen gauzei..
- c) Justifikatu gabeko beste edozein ekintza, banakoa edo taldekoa, baldin eta ikastetxeko ohiko jarduna modu larrian aldatzen badu.
- d) Asistentzia falta justifikatu gabeak eta errepikatuak, ikasturteko eskola guztien % 20tik aurrera.

*desaprovechamiento del servicio y de la posibilidad de pérdida del derecho a matricularse en la asignatura el próximo curso.*

*3) Si el problema no se resuelve, la Jefatura de Estudios de Sede informará a la alumna o alumno de la pérdida del derecho a la renovación de matrícula.*

*4) Participar en los actos organizados por la Escuela, incluidos ensayos y trabajos preparatorios necesarios, como parte integrante de la enseñanza. Dicha participación será obligatoria cuando la Dirección Pedagógica o el profesorado de las asignaturas implicadas requiera la participación o colaboración del alumnado y dichas actividades estén debidamente programadas, autorizadas y comunicadas con la necesaria antelación.*

## SECCIÓN 2ª. RÉGIMEN DISCIPLINARIO

### Artículo 68. Infracciones

*1.- Las infracciones cometidas por el alumnado podrán ser leves, graves y muy graves.*

*2.- Son infracciones leves:*

- a) Las faltas de puntualidad injustificadas.*
- b) Las faltas de asistencia injustificadas y no reiteradas.*
- c) La causación de deterioro, por uso indebido, en los locales, materiales o documentos del Centro.*
- d) Cualquier acto injustificado, individual o colectivo, que altere levemente el normal desarrollo de las actividades del centro.*

*3.- Son infracciones graves:*

- a) Los actos de indisciplina, injuria u ofensas contra las personas que componen la comunidad educativa.*
- b) La causación por uso indebido de daños en los locales, materiales o documentos del Centro o en las pertenencias de las demás personas que componen la comunidad educativa..*
- c) Los actos injustificados, individuales o colectivos, que alteren gravemente el normal desarrollo de las actividades del Centro.*
- d) Las faltas de asistencia injustificadas y reiteradas, a partir de un 20% del número total de clases por curso.*

e) Ikasturte berean 3 arau hauste arin egitea.

*e) La comisión de 3 infracciones leves en un mismo curso académico.*

4. Oso arau hauste larriak dira:

*4. Son infracciones muy graves:*

a) Eskola Komunitateko kideen aurkako diziplinarik ezezko, irainezko edo ofentsa ekintza oso larriak.

*a) Los actos de indisciplina, injuria u ofensas muy graves contra las personas que componen la comunidad educativa.*

b) Eskola Komunitateko kideen aurkako eraso fisiko oso larriak.

*b) La agresión física contra las demás las personas que componen la comunidad educativa.*

c) Beste inoren lekua hartzea hezkuntza ekintzetan eta dokumentu akademikoak faltsutzea edo lapurtzea.

*c) La suplantación de personalidad en actos de la vida docente y la falsificación o sustracción de documentos académicos.*

d) Eskolako Komunitateko kideen osasun eta osotasun pertsonalerako ekintza oso kaltegarriak eragitea.

*d) La incitación a actuaciones muy perjudiciales para la salud y la integridad personal de las personas que componen la comunidad educativa del Centro.*

e) Nahita kalte larriak egitea Eskolaren lokalei, materialari edo dokumentuei edo Eskola Komunitateko gainerako kideen gauzei.

*e) La causación intencionada de daños graves en los locales, materiales o documentos del centro o en las pertenencias de las demás las personas que componen la comunidad educativa.*

f) Larrizat jotako arau hausteak, baldin eta taldeka edo nahita iragarrita gertatzen badira.

*f) Las infracciones tipificadas como graves si concurren circunstancias de colectividad y/o publicidad intencionada.*

g) Ikasturte berean hiru arau hauste larri egitea.

*g) La comisión de tres infracciones graves durante un mismo curso académico.*

5. Eraso sexual eta sexistak, Donostiako Udalaren prebentzio eta jardute protokoloa, sexu jazarpenaren eta jazarpen sexistaren aurkakoa dokumentuan jasotzen diren bezala sailkatuko dira.

*5. Las agresiones sexuales y sexistas se tipificarán de acuerdo con el Protocolo de prevención y actuación contra el acoso sexual y por razón de sexo del Ayuntamiento de Donostia.*

## **69. artikulua. Zigorrak**

## **Artículo 69. Sanciones**

1.- Aurretik zerrendatutako arau hausteengatik, honako zigor hauek ezar daitezke:

*1.- Por la comisión de las infracciones descritas anteriormente, podrán imponerse las siguientes sanciones:*

Arau hauste arinengatik:

*Por las infracciones leves:*

Ahoz edo idatziz kargu hartzea eta idatziz jasota uztea. Egoeraren arabera, gurasoei edo tutoreari txosten zehaztua bidaliko ere zaie.

*Amonestación oral y/o escrita y registro de la misma. En atención a las circunstancias podrá ir acompañada de informe detallado para los padres y las madres o las personas tutoras.*

Arau hauste larri eta oso larriengatik:

*Por las infracciones graves y muy graves:*

Eskolatik aldi baterako edo betiko bidaltzea, hurrengo ikasturtean matrikulatzeko eskubidea ere galtzea lagun eraman dezakeela.

*Expulsión temporal o definitiva del centro, que podrá ir acompañada de pérdida del derecho a matricularse en el próximo curso.*

2.- Kalte materialik egotekotan, arau hausleak eragindako kalteak konpondu beharko ditu edo konponketa ordaindu. Halaber, ikasleren batek Eskolaren ondasunik lapurtuz gero, ostutakoa berriro ekarri beharko du. Nolanahi ere den, ikasleen guraso edo

*2.- En el caso de existir daños materiales, se repondrán por parte del infractor los daños ocasionados o se hará cargo del coste de la reparación. Igualmente, las alumnas y los alumnos que sustrajeren bienes del centro deberán restituir lo sustraído. En todo caso, sus padres, madres o*

lege ordezkariak izango dira ikasleen erantzule zibilak, legeek xedaturikoaren arabera.

## 70. artikulua. Zigor jardunbidea

1.- Kudeatzaileak izango du zigorrak ezartzeko ahalmena, Eskola Kontseilua jakitun jarrita. Pedagogia Zuzendaritzak edo hark izendatutako pertsona izando da izapidetzearen arduraduna.

Arau hauste arinengatiko zigorrak ikasleari eta irakasleari edo tutoreari entzun ondoren jarriko dira. Arau hauste larri eta oso larriengatiko zigorrak jartzeko, prozedura bat izapidetuko da. Prozedura horren barruan, entzunaldia eskainiko zaio ikasleari. Ikaslea adin txikikoa bada, haren guraso edo lege ordezkarietara ere eskainiko zaie entzunaldia. Prozedura ebatzi beharko da hasi eta hilabeteko epean, eta ebazpenaren aurka berraztertze errekurtsoa aurkez diezaioke hilabeteko epean Erakunde Autonomoaren Lehendakariari.

2.- Arau hauste arinak sei hilabeteko epean iraungiko dira, larriak bi urteko epean eta oso larriak hiru urteko epean, egin ziren egunetik aurrera.

Halako jokabideak direla eta ezarritako zigorrak urte bateko epean iraungiko dira arau hauste arinak badira, bi urteko epean arau hauste larriak badira eta hiru urteko epean arau hauste oso larriak badira.

